

Dolores Ibarruri 'Pasionaria' -k Gallartan eta meatzaldean izan zuen eragina aztertu du Meatzaritza museoak. Amelia Ortizek hura ezagutu zuen, eta haren bizitza gordina kontatu du.

## Pasio handiko emakumea

Natalia Salazar Orbe Abanto

**G**azteak errebelde gisa hezi behar ditugu». Ia 90 urte zituen emakumeak egindako adierazpenok harrirituta utzi zuten Amelia Ortiz Alonso irakasle erretiratu berria. Dolores Ibarruri Pasionaria-k (Abanto, 1895 - Madril, 1989) berari esandakoak dira, erbestetik itzuli eta gero, Bilbon eman zuen hitzaldi baten ostean. «Errebeldeia bizitzeko modu modura aldarrikatzen zuen 90 urtegar. Gure bizitzetako garai horretan baretu egin ohi gara, bizi datorkigun bezala onartzen dugu. Berak ez, ordea. Desberdina zen». Haren jaiotzaren 120. urteurrena beteko da.

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoak Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren diru laguntza baliatuta egin dituen hiru azterketetako bateko protagonista da Ibarruri: Dolores Ibarruri 'La Pasionaria'. En la memoria colectiva de la zona minera, 25 años después de su muerte. Borja Vivanco Diaz Historia doktoreak zuzendu du proiektua, eta Ortizek lagundu dio lantzen. Besteak beste, Gallartako eta meatzaldeko herritarrekin zuzeneko harrema-

na izan du; baita Pasionariagaz beragaz eta haren senideekin ere.

Karlisten familia batean sortu zen Ibarruri, Gallartan (Abanto), burdinaren ustiapenaren goral-dian. Immigrazio handia sortu zuen horrek, eta, ondorioz, kultura desberdinen talka eragin zuen Bizkaiko meatzaldean. Meatzari gehienek sinesmen erlijiosoak alde batera utzi zituzten, eta ezkerreko sozialismoaren eta sindikatuen postuluak politikoei jarraitu zieten.

Garai latzak ezagutu zituen komunismoaren, emakumeen zein langileen borroken eta politikaren erreferenteetako bat izan zen indar handiko andre hark. Zaila da borroka hori imajinatzea 1936ko gerra aurreko zein osteko sasoi hartan. «Oso garai politiko aztoratua zen. Liskar ugari zegoen, eta sektarismo handia alderdi politikoaren artean. Bere artikulak baliatuta, egoera hari irtenbidea ematen saiatu zen».

Hala ere, Ibarruri gustuko ez zuten asko zeuden meztarieren artean, haren ideologiagaz bat ez zetozelako. Eztabaida haien artean, baina, jendeak «miretsi» egiten zuen: «Ez zuten soilik Dolores komunista edo 1934ko hauteskundeetarako hautagaia ikusten: emakume ezohiko bat ikusten zuten. Hasteko, emaku-



Dolores Ibarruri, 1978ko irudi batean. BIZKAIKO HITZA

mea zelako. Eta, bestetik, haren diskurtsoa denengana iristen zelako. Jaiotzetik zuen dohain hori».

Emakume izateak oztupo ugari aurre egin beharra ere ekarri zion. Matxismoaren aurkako borroka zelakoa izan zen imajinatzen zaila da. «Gaur egun emakumeontzat presente egotea zein zaila den ikusita, pentsatu ere ezin dezaket egin. Martitzenean proiektuok aurkeztu genituen an emakume bat gerturatu zitzaidan eta zer egoera izan zuen kontatu zidan: bizitza oso lanean eman zuen arren, ez zuen erretirorik. Enpresa batean jardundakoa zen, baina ugazabek ez zuten zegokiona kotizatu, emakumea zelako. Horregatik da harrigarria garai hartan Dolores Ibarruri sortzea, hura sortu zen giroan, gainera».

Muturreko pobrezia egoerak ezagutu zituen Pasionariak. Julian Ruiz Gabiña senarra meztaria eta sozialista zen, baina ez zuen soldatarik irabazten. «Grebak egiten zituen sarri, poliziegandik ezkatututa ibiltzen zen edo kartzelan sartzen zuten. Eta,

bien bitartean, seme-alabak jaiotzen ziren. Sei izan zituzten, eta txikitari hil zitzaizkien gehienak lurperatu behar izan zituen. Oso egoera latzak igaro behar izan zituen Ibarrurik. Beharbada, lurra jo zuen, eta horregatik aterako zen ziztu bizian estratosfera arte. Gainerakoan, ezin daiteke azaldu, eguneroko bizimodua aurrera ateratzeko izango zuen larritasunari erreparatuta -etxera jatekoa eraman, etxea garbitu, seme-alabak zaindu...-, zelan aurkitu zuen denbora irakurtzeko eta politikan egin zuen bezala nabarmentzeko».

Gogora ekarri du errepublika garai hartan emakume gehiago bazirela parlamentuan. «Haiek burgesiatik iritsitakoak ziren, ordea. Askoz ere bizitza errazagoa izan zuten. Hezkuntzarako erraztasunak izan zituzten, ikasketak egindakoak ziren eta, atzean, babesten zuten familia boteretsu bat zuten».

Dolores Ibarrurik ez zeukan inor. «Madrilera abiatu zenean, Mundo obrero egunkarian lan egiteko, seme-alabak Teresa ahizpagaz utzi behar izan zituen.

## Meatzariak eta emakumeak aztertu dituzte

**+** Memoria historikoa berreskuratzeko hiru proiektu garatu ditu Euskal Herriko Meztarieren Museoak. Bat, Pasionariari buruzkoa da. Beste bat, frankismo garaiko erreprezioaren barruan, meatzaldean emakumeak eta familiak zelan bizi ziren jaso dute. Hirugarrenean, frankismo garaian meztariek zituzten lan eta bizi-baldintzak eta haien borrokak aztertu eta jaso dituzte.

Egoera horrek kezka eta larritasuna sortzen zion, ama gisa, bere seme-alabengatik dena egiten ari ez zela sentitzen zuelako. Hala ere, gizartearekiko eginbehartzat zeukan beste lan bat egin behar zuela ere uste zuen».

Erbestean elkartu zen haiekin. Amaia alabagaz sarri egin du berba Ortizek, oraindik bizirik baitago. «Ama oilo bat zela dio. Asko babesten zituela. Zorrotza ere bazen. Uste zuen jende indartsua hezi behar zela, sistema zapaltzaileari aurre egin ahal izateko».

Hezkuntzari eta kulturari garrantzi handia ematen zion Ibarrurik. «Meztari gehienek zuten kezka bat zen hura: seme-alabek ikasketak egitea». Pasionariari ezinezkoa egin zitzaion ikasketak bukatzea, baina, nola edo hala, liburuak irakurtzen zituen: «Uste zuelako hezita besterik ezin daitekeela ulertu zer den gertatzen dena. Beraz, haren esanetan, beharginek errealtate soziala ulertzeko gai izan behar dute, gizarteak eraldatu ahal izateko».

### Ibarruriz harro

Gallartan «gutziz identifikatuta» sentitzen dira emakume hargaz. «Agian ez haren ideologiagaz. Bai, ordea, mezteen oinazea ezagutu zuen emakumeagaz, desabantaila egoera sozial hura ezagutu zuen andregaz. Herriko emakume askok bizi izan dute egoera hori: bai gure amamek, bai amek. Eta harro gaude gure ordezkaria izan delako», aitortu du Ortizek.

Pasionariak meatzaldeko mezteen historia ezagutzera eman zuela deritzo. «Gainerakoan, ez-kutuan gorde da. Mezteetako historia ez da irakasten eta oso agiri gutxitan agertzen da». Ibarrurik «mezteetako zailtasun gutzietan aurre egin eta gure historia egunerokotasunaren mugetatik kanpo eramaten jakin zuen emakumea ordezkatzen du».

hamaika abantaila

berrialaguna

Komunitate bat,



Baserriko oilaskoa eta etxeko okela • Sagardoa urte osoan txotx eran

Montorra, 6 • 48340 ZORNOTZA • Tel.: 94-630 8815 • www.uxarte.com